

GARAPEN PERTSONALARI ETA SOZIALARI APLIKATUTAKO FILOSOFIA

Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia jakintzagaiak, Derrigorrezko Hezkuntzaren azken kurtsoko aukerako gisa, helburu du, lehenik eta behin, ikasleen funtsezko kezka eta kezka existentzialak —galdera eta proposamen filosofiko handiekin lotutakoak— analizatzeko espazio bat eskaintzea. Bigarrenik, jakintzagaiaren helburua da, halaber, ikasleei zalantzan jartzeko eta gogoeta egiteko gutxieneko jarrera eta oinarritzko ezagutzak ematea, gizabanako eta gizarteko kide gisa garapen egokia izan dezaten. Heziketa filosofikoa ezinbestekoa da gizarte demokratiko bat printzipio, balio eta praktika etiko, politiko eta zibikoen inguruan egituratzeko. Izan ere, gizarte demokratikoaren zilegitasunerako eta eraginkortasunerako, beharrezkoak dira herritarren deliberazio dialogikoa, konbikzio arrazionala eta iritzi-autonomia. Azkenik, Filosofiak berekin dakar, halaber, pertsona ororen garapen integrale-rako behar diren arrazoiari eta emozioei buruz gogoeta kritikoa egitea.

Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia jakintzagaiak, eskatzen duen jarrera kogno-sitibo erradikalagatik eta jorratzen dituen gai eta alderdien aniztasunagatik, espazio egokia eskaintzen

du funtsezko konpetentziak modu integratuan garatzeko. Ildo horretatik, arazo unibertsal eta funtsezkoen inguruan ikertzea —horiek ikasleen hurbileko ingurunearekin eta egungo gizarte-arazoekin lotuta— baliagarria da haien heldutasun pertsonala eta soziala sustatzeko helburua lortzeko eta haien dimentsio intelektualak nahiz nortasun pertsonalarekin eta gizarte-bizitzarekin lotutako beste alderdi batzuk garatzeko. Funtsezko konpetentzia guztiak lantzen badira ere, bereziki jorratzen dira honako hauek: Herritar-tasunerako konpetentzia eta Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

Jakintzagai honek etapako gainerako jakintzagaiekin duen loturari dagokionez, Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikaturako Filosofia hainbat jakintzaren arteko lotura naturala da. Gai filosofiko nagusietara gogoeta eginez eta modu dialogikoan hurbiltzeak erraztu egiten ditu ikaste-prozesu esanguratsuak eta diziplinarteko ikuskera. Arlo honetan jorratzen den gaitasun kritikoa, kontzeptuala eta dialogikoa garatzea funtsezkoa da abstrakzio-gaitasuna, zalantzan jartzeko gaitasuna eta ideien trukean oinarritutako argudiozko elkarrizketan parte hartzeko trebetasuna garatzeko. Esan gabe doa gaitasun horiek guztiak garapen pertsonalaren eta intelektualaren oinarria osatzen dutela, eta, horrenbestez, ezinbestekoak direla arlo guztietan. Azkenik, gogoeta filosofiko existentziala ikasleen ezinbesteko premia da Derrigorrezko Hezkuntzan.

Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikaturako Filosofia jakintzagaiak sei konpetentzia espezifikotan antolatzen da. Planteamenduaren izaera maieutikoa dela eta, konpetentzia horiek nahitaez inplementatu behar dira, hein handi batean, ikasleen ikerketa filosofikoa bera erreferentzia-zentro gisa hartuko duen irakaskuntza dialogikoaren esparru metodologikoan.

Konpetentzia horietako lehenengoak zalantza du ardatz, filosofiaren oinarritzko tresna den aldetik. Helburu du galdera filosofiko nagusiak identifikatzea eta norbere buruari galderak egiteko gaitasuna garatzea. Bigarren konpetentzia konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren erroa doa, ikasleek beren bizi-ingurunearen eta gai filosofiko nagusien arteko erlazioak ezartzea baitu helburu. Hirugarren konpetentzia elkarrizketa praktikatzeari buruzkoa da, jardun filosofikoa osatzen duen ezagutza-prozesu kooperatibo gisa hartuta. Horrek, aldi berean, ideia eta teoria filosofikoen izaera plurala eta ez-dogmatikoa ezagutzea eskatzen du, baita ezagutza hori zeregin bikoitzean (kritikoan eta eraikitzailean) inplementatzea ere: ideia eta teoria horiek kontrastatzea eta horien arteko aurkakotasuna eta osagarritasuna aurkitzea.

Laugarren konpetentzia kontzeptualagoa da, eta ikasleei pentsamenduaren historian zehar oinarritzko nozioak eta eztabaidak emateko beharrari erantzuten dio, filosofiaren izaera eta bere galderen erradikalitatea barneratzen laguntzeko. Bosgarren konpetentziaren ardatza identitatea eraikitzea eta emozioak esparru filosofikotik analizatzea da. Filosofiaren praktikak ikasleen nortasunaren prestakuntza integrala eman behar du, ikasleak erronka pertsonal, emozional, sozial eta profesionaleri arrakastaz aurre egin ahal izan diezaien, etengabe eraldatzen ari den eta ziurgabetasunez beteta dagoen geure munduak berekin dakartzan erronkei, hain zuzen. Azkenik, seigarren eta azken konpetentzia espezifikoa, funtsezko gai buruzko pentsamendu propioa eta era berean zorrotza sortzeko ahalmena jorratzen du, baita XXI. mendeko erronken aurreko iritzi eta konpromiso autonomoak garatzeko ahalmena ere.

Ebaluazio-irizpideei dagokienez, dagoeneko azaldutako konpetentzia espezifikoko bakoitzarekin zuzenean lotuta formulatzen dira, eta diagnostiko- eta hobekuntza-tresnatzat hartu behar dira, konpetentzia horiek eskuratuz gero espero den jardun-mailari dagokionez.

Oinarritzko jakintzak hiru multzo handitan banatuta daude, eta helburu dute ikasleei filosofiak barne hartzen duen ikasketa-eremu aberats eta konplexuaren oinarritzko eta multzoko ikuspegia ematea. Hala ere, kasu bakoitzean, eta ikasleen idiosinkrasia, hezkuntza-testuingurua edo beste irizpide pedagogiko batzuk kontuan hartuta, batzuk besteak baino gehiago sakondu ahal izango dira. Gainera, komeni bezala multzokatu eta egituratu ahal izango dira. Hala, jakintza filosofikoa, haren adarrak eta ezaugarriak barne hartzen dituen lehen jakintza multzoan, ezagutzaren eta errealitatearen funtsezko gaiak jorratzen dira. Bigarren multzoa bideratuta dago identitatea eraikitzaile (funtsezkoa da adin honetan) eta, era berean, bizitzari eta zorientasunari buruz gogoeta egitera, gai horiek funtsezkoak baitira gizaki ororentzat. Hirugarren eta azken multzoa filosofiaren dimentsio praktikoen bideratuta dago. Horregatik, gogoeta etiko eta politikoari heltzen zaio, baita herritar kontziente eta aktibo izateko behar diren nozio eta tresnei

ere. Ildo horretatik, azken multzo horrek egungo problematika handietan jartzen du arreta, ikasleei eztabaida horietan parte harrarazteko helburuarekin.

Argi dago etapa honetan Filosofia irakasteak eta ikasteak ez duela gaien azalpen programatiko huts bat izan behar. Aldiz, galdera filosofikoak deskubritzeko esperientzia erreal bat sortu behar da. Esperientzia horretatik abiatuz, ikasleak bultzatu behar dira horien inguruko ikerketa analitikora, eman zaizkien erantzunen ebaluazio kritikora eta beren jarrera-hartze pertsonalen eraikuntza zorrotzera. Ildo horretatik, jakintzagaiaren programazioan kontuan hartu beharko da jarduera filosofikoak berez duen izaera dialogikoa, parte-hartzailea, diziplinartekoa, sortzailea eta garrantzizko arazoekin konprometitua. Hala, autonomia pertsonala eta herritarren jardun kritiko eta ekosozialki arduratsua lortzera bideratuko da programazioa.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza-jardunean txertatuta egon daitezten, eta beharrezkoa denean erreferente artistiko, kultural, antropologiko, linguistiko edo sozialetara jotzea, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexuala, afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa, beste kultura-dimentsio batzuekin lotuta, beharrezkoa balitz. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta gogoeta-pentsamendua garatzeko. Gainera, garrantzitsua da erreferente teoriko jakin batzuei heltzea, euskal dimentsioarekin eta aipatu dugun inklusioarekin lotutako ideia eta egile zehatzen bidez.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Arazoak identifikatzea eta galdera filosofikoak egitea, hurbileko errealitateekin lotutako testu, bideo, joko, dinamika edo beste material batzuetatik abiatuz, pentsamendu kritikoa, autonomia eta kontzientzia garatzeko.

Jarduera filosofikoaren abiapuntua existentziaren beraren aurrean dagoen harridura da, baita, sinesmen komunak zalantzan jarri ondoren, haren izaerari, balioari eta zentzuari buruz planteatu daitezkeen galderak ere. Zalantza eta harridurako jarrera horrek, nerabezaroan ia modu naturalean garatzen den arren, bide formala eta metodologikoa, hizkuntza espezifikoa eta kultura-tradizioa behar ditu, ikasleei beren bizi-kezkak eta kezka existentzialak adierazten eta analizatzen laguntzeko. Horretatik, komeni da galdera handiak testuetan eta gogoeta filosofikoa sustatuko duten bestelako bitartekoetan identifikatzea. Garrantzitsua da gogoratzea konpetentzia hau ez dela identifikaziora eta analisisira mugatzen, baizik eta helburu hartzen duela, era berean, ikasleei izaera bereko arazoak eta galderak formulatzen eta adierazten laguntzea, bizitza gogoetatsua, kritikoa eta norbere buruaz erabat jabetua lortzeko.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, STEM1, KPSII4, HK1, HK3 eta KAKK3.

2. Kontzeptu eta eztabaida filosofiko klasikoak eta garaikideak beren beharrekin eta bizi-ingurunearekin lotzea, material idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, artistikoak edo bestelakoak analizatuz, Filosofiak bizitzaren esparru guztietan duen presentzia identifikatzeko.

Bigarren konpetentzia hau konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren errora doa, ikasleek beren bizi-ingurunearen eta gai filosofiko nagusien arteko erlazioak ezartzea baitu helburu. Zentzua eta esanahia bilatzea da, ziurrenik, ikaste-prozesuan arrakasta lortzeko faktore nagusia. Horretatik, ezinbestekoa da ikasleek beren bizi-ingurunearen, errealitatearen, kezken, errealitate sozial eta politikoaren eta ikasgelan jasotzen dituzten eta gogoeta egiten dugun ezagutzen artean loturak ezartzeko gaitasuna garatzea. Material askotarikoak eta kasu askotan ez hertsiki filosofikoak erabiltzeak —Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bezalako etapa baterako egokiagoak— aukera ematen digu ikasleei laguntzeko aipatutako zubiak eraikitzen eduki kontzeptualen eta inguruan duten errealitatearen artean.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, HKK3, KE2, STEM1, KD1, KPSII4, HK4, EK3 eta KAKK2.

3. Argudiaketan oinarritutako elkarrizketa filosofikoa modu zorrotz, kritiko, tolerante eta enpatikoan praktikatzea, jarduera dialogiko kooperatiboetan parte hartuz, ideien trukea eta herritartasun aktibo eta demokratikoaren jarduna sustatzeko.

Hau da konpetentzia garrantzitsuenetako bat filosofia benetako heziketa zibikoa dela esan izan dadin. Elkarrizketa filosofikoak batera gutxitan agertzen diren hainbat bertute biltzen ditu: argudio-zorroztasunaren eskakizuna, aniztasun ideologikoaren onarpena eta bat ez gatozen pertsonetikiko errespetuzko jarrera enpatikoa, jarrera komun bat bilatzeari eta elkarrekin aurkitzeari utzi gabe, eta desadostasuna nahitaez gatazka gisa ulertu behar izan gabe, ikuspegi aniztasun eta osagarritasun gisa baino. Elkarrizketa filosofikoaren praktikak, era berean, sustatu egiten ditu motibazioa, alderdi emozionalak, ikaskuntza aktiboa eta esanguratsua, ikerketa edo aurkikuntza bidezko irakaskuntza, kolaborazio-lana edo bizitza osoko prestakuntza. Etapa honetan faktorerik garrantzitsuenak izan gabe, egokia da gogoratzea elkarrizketa filosofikoa eta kalitatezkoa izan dadin, arreta jarri behar diegula argudiaketa-prozedurei, horien oinarriei, baldintzei, araei, motei, propietatei eta mugei.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK5, STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, HK1 eta HK3.

4. Filosofiaren izaera hautematea eta ideia eta eztabaida nagusiak ezagutzea, horien ikasketa eta azterketa kritiko eta dialektikoaren bidez, pentsamendu filosofikoaren gutxienekoak ezagutu baina ikusketa integrala sortzeko.

Konpetentzia honen bidez, filosofiaren beraren izaera helarazi nahi zaie ikasleei, filosofia ulertuta ariketa nahitaez plurala eta dialektikotzat eta, era berean, elkarrizketa arrazional ireki eta konstruktiboan aritzeko abagunetzat, giza ekintza, esperientzia eta inguruabarren izaerari, zentzuari eta azken balioari eragiten dioten gai guztietan sakonduz. Historiako pentsalari nagusiek denboran zehar formulatu eta eztabaidatutako ikuskerak eta ideiak gure nortasunaren, gure kulturen indarrean dauden doktrina ekonomiko, politiko, zientifiko, estetiko edo erlijiosoaren oinarri ideologikoaren eta argudiozkoaren parte ordezkaria dira, baita ekintza moralak, sozialak eta politikoa bideratzen edo inspiratzen duten printzipio eta balioen multzoarena ere. Ideia horiek zorrotz eta sakon ezagutzea eta balioestea ez da soilik arazo filosofikoak eta, neurri batean, beste edozein gai kultural edo etiko-politiko aztertzei baldintza, baizik eta norbere burua ezagutzeko funtsezko eskakizuna ere, ekintza eta gogoeta bera, neurri handiagoan edo txikiagoan, ideia horietatik elikatzen den heinean.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, HKK5, KPSII4, HK1 eta HK3.

5. Norberaren nortasunari eta norberaren bizi-proiektuari buruzko gaien inguruan gogoeta egitea, arrazoimenaren, emozioen eta ingurune sozial eta kulturalaren eraginari buruz hausnartuz, autoezagutza sustatzeko eta bizi-planteamendu kontzienteak lantzeko.

Autoezagutza da pertsona guztien bizi-garapenerako eta garapen akademikorako lehen eskakizunetako bat. Zeregin honen helburu nagusia da ikasleak jabetzea bere buruz eta gizakia arrazionaltasuna, bolizioa eta afektuak dituen izaki gisa bereizten duten ezaugarri eta dimentsioez, bere izaeraren eta hura ahalbidetzen eta baldintzatzen duten inguruabar sozial, historiko eta kulturalen arabera. Ezinbesteko konpetentzia-zutabea da ikasleek galdetzea gizabanako gisa duten rol sozialari buruz, bizitza komunitarioaren eta ingurunearekiko harremanen esparru betiere problematikoa. Azken helburua da ikasleek, jakintza filosofikoaren oinarriko kontzeptu eta prozeduren ezagutzatik eta erabilera egokitik abiatuta, beren bizi-proiektuaren mende dauden balio-judizioak eta beren helburu pertsonal eta profesionalen lorpena askatasunez eta kritikoki eraikitzen ikastea.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK2, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK1, HK3 eta KAKK3.

6. Arazo etiko garaikide nagusiak eta horien aurrean egindako proposamenak analizatzea, ikerketaren, elkarrizketaren eta bateratze-lanaren bidez, arazo horiei jarrera kontziente eta aktibo batetik aurre egiteko bidea emango duen jarrera kritikoa eta autonomia eraikitzeko.

Mundu gero eta konplexuagoan eta aldakorragoan bizi gara, inguruan ditugun gatazken aurrean ezagutzak, jarrera kritikoa, gogoetarako gaitasuna eta proaktibitatea eskatzen dituzten erronkez betetako mundu batean. Horregatik, seigarren eta azken konpetentzia espezifikoak funtsezko gaietara buruzko pentsamendu propioa eta era berean zorrotza sortzeko ahalmena jorratzen du, baita XXI. mendeko erronken aurreko iritzi eta konpromiso autonomoak garatzeko ahalmena ere. Horretarako, gaur egungo arazo etikoak beren konplexutasunean analizatu behar dira, eta, analisi horrekin batera, arazo horiei eta hobetzeko dauden aukerei buruzko gogoeta kooperatiboa egin behar da.

Irteera-profilaren deskriptoreak: HKK3, HKK5, STEM2, KD4, KPSII1, KPSII3, HK1, HK3 eta HK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

| Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia | |
|---|---|
| 1. konpetentzia espezifikoa | |
| 1.1. | Arazo filosofikoen erradikalitatea eta garrantzia hautematea, horiek identifikatuz eta horien inguruan gogoeta eginez, testuekin eta beste adierazpide batzuekin lan eginda. |
| 1.2. | Idea eta galdera filosofikoak formulatzea, pentsamenduaren historian zehar garatutako gai nagusietatik abiatuz. |
| 2. konpetentzia espezifikoa | |
| 2.1. | Eguneroko gaietan eta beren hurbileko ingurunean dagoen ezkutuko oinarri filosofikoa hautematea, Filosofiako kontzeptu eta eztabaida klasiko eta garaikideen eta analizatutako gertakari eta errealitateen azpian dagoen arazo filosofikoaren arteko loturak ezarriz. |
| 3. konpetentzia espezifikoa | |
| 3.1. | Filosofikoki garrantzitsuak diren gai eta arazoei buruzko ideiak kontrastatzeko eta trukatzeko talde-jardueretan parte hartzea, baita herritartasun aktibo eta demokratikoan jarduten ere, argudiozko elkarrizketa arrazionala, errespetuzkoa, irekia, eraikitzailea eta egiarekin konprometitu erabiliz. |
| 3.2. | Jardun dialogikorako indarrak eta ahuleziak norbere baitan identifikatzea, bai maila tekniko-argudiozkoan, bai maila emozionalean, norberaren parte-hartzeaz jabetuz eta horiek konpontzeko estrategiak ezarriz. |
| 4. konpetentzia espezifikoa | |
| 4.1. | Arazo filosofikoen ikuskera ez-dogmatikoa sortzea, horien inguruko ideia filosofiko desberdin eta kontrajarrien analisi kritikoaren bidez. |
| 4.2. | Teoria filosofiko desberdinak analizatzea, gogoetarako eta elkarrizketarako prozesu dinamiko eta beti ireki baten une gisa, tesi eta teoria horien argudioei buruzko analisiaren bidez. |
| 5. konpetentzia espezifikoa | |
| 5.1. | Ikerketaren eta elkarrizketaren bidez, norberaren kontzeptu egoki bat eraikitzea, bere izaeraren eta nortasunaren dimentsio anitzak ezagutuz, bere bizi-proiektua eta helburu pertsonalak lortzeko oinarri gisa. |
| 5.2. | Norberaren eta besteen emozioak, estimua eta zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak identifikatuz, analizatuz eta modu asertiboan adieraziz eta besteenak ezagutuz eta baloratuz. |
| 6. konpetentzia espezifikoa | |
| 6.1. | Ikerketaren eta elkarrizketaren bidez, gaur egungo eztabaida etiko nagusiak ezagutzea eta ulertzea, horien inguruan gogoeta egiteko, horiek eskuratutako ezagutza filosofikoekin erlazionatuz, beren inguruan jarrera propioa eraikitzeko. |

OINARRIZKO JAKINTZAK

| Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia | |
|---|--|
| A. Filosofia, errealitatea eta ezagutza: | |
| 1. Zer da Filosofia eta zertarako balio digu? | Filosofiaren jatorria eta definizioa. |
| | Jakintza filosofikoaren ezaugarriak. Pentsamendu kritikoa eta autonomia. Filosofiaren adarrak. |
| | Filosofiaren zeregina garapen pertsonalean eta sozialean. |

2023ko uztailaren 31, astelehena

| Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia | |
|---|--|
| 2. Nola ezagutzen dugu eta zertarako balio digu ezagutzak? | Ezagutzaren arazoa. Egia: jarrerak eta teoriak. |
| | Egia eta egungo gizartea. Egia-osteko aroa eta "fake new"ak. |
| | Ezagutza-moduen analisisa: arrazoa, emozioak, intuizioa eta sinesmenak. Arrazoimena eta espiritualtasuna gaur egungo gizartean. |
| | Ezagutzaren dimentsio politikoa eta soziala: ezagutza, askatasuna eta boterea. Desinformazioa eta gaininformazioa. |
| | Errealitatea eta berori ulertzeko moduak: esentzialista, erlazionala eta prozesuala. |
| B. Nia, gizakia eta bizitza: | |
| 1. Nor naiz eta nor gara? | Nor naizen eta nor garen: erantzunak filosofiatik, zientziatik eta erlijiotik. |
| | Identitate pertsonala eta kolektiboa: horren eraikuntzan eta bilakaeran eragina duten faktoreak. Identitateak eta diskriminazioa. |
| | Identitate eta identifikazio pertsonala. Nia eta taldea: sozializatzeko prozesuak eta moduak. Niaren konfigurazioa: arrazoa eta emozioak. |
| | Gizakia: natura eta kultura. |
| | Zer da kultura? Gure inguruko aniztasun kulturalaren eta gatazka kulturalen aurreko jarrerak. |
| 2. Zer da bizitza eta nola izan zoriontsu? | Zoriontasunaren teoriak. |
| | Bizitzaren zentzua filosofiaren historian eta egungo gizartean. Errealizazio pertsonala eta soziala gaur egungo munduan. |
| | Zoriontasuna norbanakoaren eta gizartearen ikuspegitik: haren eraikuntzan eragina duten faktoreak. Zoriontasunaren bilaketa egungo gizartean. |
| C. Filosofia praktikoa hemen eta orain: | |
| 1. Zer dago ondo eta nola bizi gaitzke elkarrekin? | Etikaren eta Politikaren oinarritzko kontzeptuak. Etikaren eta politikaren arteko erlazioa. |
| | Jarrera etikoak: unibertsalismoa, erlatibismoa eta eszeptizismoa. Teoria etiko nagusiak. |
| | Gatazka etikoak eta moralak gure eguneroko ingurunean. Eztabaida etiko garaikideak. |
| | Gizartea antolatze eta boterea kudeatzeko proposamen nagusiak. Eskubideak eta betebeharrak. |
| | Funtzionamendu politikoa gure gizartean. Politika hemen eta orain. |
| | Gazteak eta politika. |
| 2. Zer ekarpen egiten dio Filosofiak egungo gizarteari? | Estetika gaur egungo gizartean: Artea eta Edertasuna Filosofiatik. Estetika eta kontsumo-gizartea. Estetika eta identitatea. |
| | Problematika garaikideak: planetaren mugak, globalizazioa, genero-desberdintasuna, garapen teknologikoa, migrazio-mugimenduak, bidegabekeria epistemologikoak... |
| | Filosofiaren zeregina egungo gizartean. Filosofia eta heziketa. |